

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak langabeen kontratazioa sustatuko du ikasten edo lan egiten duten menpeko pertsonen laguntzaile modura

Enplegu-poltsa bat sortuko da xede horretarako eta beharrezko berriazko prestakuntza emango zaie

Jueves, 04 de abril de 2013

Nafarroako Gobernuak langabeen kontratazioa sustatuko du lanean edo goi-ikasketak egiten ari diren menpekotasun handia edo larria dutenentzako laguntzaile modura.

Horretarako, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak enplegu-poltsa bat sortuko du eta Gizarte Politiken Departamentuarekin beharrezko berriazko prestakuntza emango du menpekoei laguntzeko eta arreta emateko. Poltsa horretan izena emateko beharrezkoa da [NEZko edozein agentziataraz](#) jotzea eta ez da inolako titulazio zehatzik eskatzen.

Ekimen horrekin Nafarroako Gobernuak nahi du lanean edo ikasten ari diren menpekotasun handia edo larria dutenek "bizitza erabat betea izan dezatela, autonomia eta bere ingurunean integratuta", Gizarte Politiken kontseilari Iñigo Allik aipatu duenez. Gainera, kontseilariak adierazi du pertsona menpekoen bizitza autonomia lortzea bera titular den Departamentuaren "aparteko garrantzia duen" helburuetako bat dela.

Alli kontseilariak –Gizarte Politika eta Kontsumoko zuzendari nagusi Mariano Oto izan da harekin– ere bizitza independentearen bulego berria aurkeztu du. Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziaren mende dago, eta bere lanerako, goi-ikasketetarako edo eguneroko bizitzarako laguntzaile pertsonal hori eskatzen duten pertsonen bizi-proiektuak banan-banan aztertuko ditu, eta beharrezko aholkularitza eskainiko die.

Laguntza-deialdiaren xehetasunak

Gizarte Politika eta Kontsumoko zuzendari nagusi Mariano Oto-k zehaztu du lanean edo goi-ikasketak egiten ari diren menpeko handi edo larriek [laguntzaile pertsonal bat kontratatzeko laguntza-deialdia](#). Deialdi hori Gizarte Politiken kontseilariaren foru-agindu batek arautzen du eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean [argitaratu da berriki](#).

Laguntzak ahalmen ekonomikoaren arabera emango dira, eta hura errenta, ondarea eta menpekotasun-mailaren arabera kalkulatu da. Era horretan, menpeko handientzako laguntzak hilean 1.214,83 euro eta 485,93 artean izango dira eta menpeko larrien kasuan, 723,94 eta 289,58 artean. Laguntza ekonomikoak ez du inoiz kontratazio-kostua gaindituko.

Oto-k aipatu duenez, laguntza horiek Estatukoak baino % 70 handiagoak dira gehieneko zatietan eta % 250 gehiago gutxienean.

Gainera, gutxieneko 120 ordutatik 80ra jaitsi da hilean laguntzaile pertsonalentzat.

Prestazioa bermatuta

Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziaren aurreikuspena da laguntza horiek gutxienez dozena bat menpeko pertsonak baliatu ahal izatea. Horretarako, 120.000 euroko partida ekonomikoa dago, eta kopuru hori handitu daiteke bermatutako prestazioa baita Nafarroako [Gizarte Zerbitzuen departamentuan](#). Gaur egun laguntza horietaz pertsona bakarra baliatzen da, Oturen arabera.

Halaber, zuzendari nagusiak iragarri du Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziaren xedea prestazio hori menpeko arinetara zabaltzea dela urte hau amaitu aurretik. Estatuko araudiaren arabera, 2015 arte Espainiako autonomia erkidegoek zabaltze hori egiteko epea dute.

Laguntza horiekin, menpekotasunaren autonomia- eta arreta-sisteman sartuta, Nafarroako Gobernuak pertsona horien bizitza independentea sustatu nahi dute, haien autonomia pertsonala eta beren ohiko inqurunean egoteko erraztasunak jarri.